



PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN ORRIA.

BBUP-EN INFORMAZIO GEOGRAFIKOKO SISTEMARAKO (GIS) SOFTWAREAREN LAGUNTZA TEKNIKO

PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN ORRIA.	1
1. KONTRATUAREN XEDEA	2
2. SOLUZIOAREN HELMENA.....	2
Inguruneak	3
3. ZERBITZUEN DESKIBAPEN TEKNIKO.....	3
3.1. GARAPEN BERRIAK AZTERTZEA, GARATZEA ETA EZARTZEA	3
3.2. MANTENTZE ZUZENTZAILEA.....	4
3.3. BILAKAERAREKIN NAHIZ EGOKITZEAREKIN LOTURIKO MANTENTZEA	4
3.4. SMALLWORLD-ESRI INGURUNEAK INTEGRATZEA.	4
4. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA TEKNIKOAK	5
4.1. ZERBITZUA ESKATZEA	5
4.2. BBUP-EN EKARPENAK	5
4.3. ADJUDIKAZIODUNAREN EKARPENAK	5
4.4. SOFTWAREA JASO ETA USTIATZEN HASTEA.....	6
5. PROIEKTUA ANTOLATU, KOORDINATU, GAUZATU ETA KUDEATZEA.	6
5.1. PLANGINTZA.	6
5.2. LANTALDEA.....	6
5.3. PROIEKTUA GAUZATZEA	8
5.4. JARRAIPENA ETA KONTROLA.....	8
5.5. TRANSFERENTZIA TEKNOLOGIKOA	8
6. PROIEKTUAREN KALITATEAREN ETA ALDAKETAREN KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIOA	8
7. PRESTAKUNTZA-PLANA	9
8. SEGURTASUNA ETA KONFIDENTZIALTASUNA. DATUEN BABESA	9
9. MANTENTZEA ETA ZERBITZU-MAILA	10



10. ENTREGAGAIAK.....11

1. KONTRATUAREN XEDEA

Softwarearen laguntza teknikoa kontratatzen da BBUPen Informazio Geografikoko Sistemarako, bai aplikazioaren mantentze-lanak egiteko, bai egungo Smallworld 5.2.10 eta GeoSpatial Analysis Software (GSA) bertsioetan garapen berriak egiteko.

Kontratu honetan osotasun-prozesu bat ere egingo da ESRI tresnekin.

2. SOLUZIOAREN HELMENA

Zehazki, kontratuaren xedearen zati den aldetik, soluzioak honako puntu hauek jaso behar ditu:

- Egungo bertsioaren mantentze-lanak egitea.
- Proba- eta ekoizpen-inguruneetan egin beharreko aldaketak ezartzea.
- BBUPen erabiltzaileei prestakuntza ematea, bai oinarrizko erabiltzaile-mailan, bai erabiltzaile aurreratuaren mailan (administratzailea), konfigurazioari eta administrazioari dagokienez.
- Erabiltzailearen eskuliburu bat egitea, une bakoitzean egiten ari diren aldaketak jasotzeko.



Inguruneak

Ingurunea	Helburua	Kopurua	Oharrak
Testa GISPRUEBAS	Ingurune hau aurreproduzio, balioztatze, testing, erabiltzaileen prestakuntza, errendimenduaren simulazio eta abarrerako soilik erabiltzen da.	1	Kontratak behar diren kode- eta konfigurazio-aldaketak egiteko sarbidea izatea. Erabiltzaile-probak
Ekoizpena GIS	Ekoizpenerako erabilitako ingurunea, eguneratua, BBUpek GISPRUEBASen egindako garapenak ontzat eman ondoren.	1	BBUPeko erabiltzaileen eta GISak kudeatzen dituzten kontraten sarbide eskusiboa.
Webgunea GISSIAS SIAS DMZ	GIS Web eskaerei zerbitzua ematen dien ingurunea	1	URLetatik eta Android aplikazioetatik (smartphoneetan) egiten diren web-eskaeren euskarri diren zerbitzuak.
Kontsulta GSA Network Viewer	GIS informazioa ustiatzeko aukera ematen duen ingurunea	1	Kontsultak eta analisiak egitea.

3. ZERBITZUEN DESKRIBAPEN TEKNIKOA

Laguntza teknikoan gauzatuko diren ingurune guztietan, honako zeregin hauek egingo dira:

- Garapen berriak aztertzea, garatzea eta ezartzea.
- Dauden garapenen mantentze zuzentzailea.
- Bilakaerarekin nahiz egokitzearekin loturiko mantentzea, egungo garapenak aldatzeagatik edo funtzionalitate berriak garatzeagatik.
- Smallworld-ESRI inguruneak integratzea.

3.1. GARAPEN BERRIAK AZTERTZEA, GARATZEA ETA EZARTZEA

Garapen berriak aztertzeko eta diseinatzeko lanak, beren izaeragatik Smallworld GIS eta GSA softwarean



konfiguratu ezin direnak.

Zerbitzua honela emango da:

- Adjudikaziodunaren langileak BBUPEko teknikariekin bilduko dira, baldintzak zehazteko.
- Analisi funtzionala eta diseinu teknikoa egingo dira.
- Aurreikusitako epean, dokumentu hauek entregatuko dira, guztiz garatzeko behar bezain xehatuta:
 - Informazio-sistemaren analisia.
 - Erabiltzailearen eskuliburua.

3.2. MANTENTZE ZUZENTZAILEA

Egindako garapenen funtzionamendutik edo GIS-Smallworld softwarearen konfiguraziotik bertatik eratorritako gorabeherak edo akatsak konpontzean datza.

Zerbitzua honela emango da:

- BBUPEko teknikariak akatsaren zehaztapenak zehaztuko dituzte, eta adjudikaziodunaren langileei helaraziko dizkiete. Gainera, presakoa edo normala den zehaztuko dute.
- Langile horiek behar diren zuzenketak eta probak egingo dituzte arazoa konpontzeko.
- Azkenik, aldaketak dokumentatuko dira, eta ebatzi diren gorabeheren eta egin diren aldaketen berri emango da. Horretarako, gehienez ere lau orduko epea izango da premiazko gorabeheretarako, eta bost laneguneko, gainerako gorabeheretarako.

3.3. BILAKAERAREKIN NAHIZ EGOKITZEAREKIN LOTURIKO MANTENTZEA

Erabiltzaileek edo Informatikako Zuzendariordetzak berak eskatuta egingo da, sistema funtzionaltasun berrien aurrean hobetzeko edo egokitzeko.

Zerbitzua emateko modua honako hau izango da:

BBUPEk erabakiko ditu egin beharreko aldaketak edo hobekuntzak, eta exekuzioen lehentasuna zehaztuko du. Kontratututako enpresari analisia eskainiko zaio.

Adjudikaziodunaren langileek software berria garatu, probatu eta ustiatuko dute.

Azkenik, lana dokumentatuko da, eta BBUPEko arduradunari jakinaraziko zaio, gehienez ere hilabeteko epean.

3.4. SMALLWORLD-ESRI INGURUNEAK INTEGRATZEA.

Kontratu honetan aurreikusten diren bilakaera-orrien artean, Smallworld-en garatutako gaur egungo plataformaren inguruneak ESRI tresnekin (ArcGIS Pro-rekin, hain zuzen ere) integratzea dago.



Kontratuari atxikitako langileek ezagutza nahikoak izan beharko dituzte inguruneen arteko integrazioa modurik errazenean egin ahal izateko eta informazio-trukea modu automatikoan egiteko.

4. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

4.1. ZERBITZUA ESKATZEA

BBUPek hauen berri emango dio enpresa adjudikaziodunari:

- Aztertu beharreko garapen berria.
- Lehendik dauden garapenetan hautemandako akatsak.
- Lehendik dauden garapenetan egin beharreko aldaketak.

BBUPeko Informatikako Zuzendariordetzako teknikariek planifikatu behar dituzte, adjudikaziodunarekin batera, amaiera-datak eta esleitutako zereginei aplikatu beharreko baliabideak.

4.2. BBUP-EN EKARPENAK

BBUPek adjudikaziodunari lana egiteko behar duen dokumentazio guztia emango dio:

- Aztertu beharreko garapen berriei buruzko informazio guztia.
- Lehendik dauden garapenetan gertatutako erroreak eta akatsak.
- Behar diren proba-errekerimenduak.
- Mantendutako sistemen funtzionaltasun berriak aztertze dokumentuak.

Kasu guztietan, BBUPeko informatika-teknikariak izango dira erabiltzaileekiko solaskideak, eta haiek egingo dute dagokion analisi kontzeptuala, beharrezkoa denean.

4.3. ADJUDIKAZIODUNAREN EKARPENAK

Adjudikaziodunak honako hauek eman behar dizkie BBUPeko Informatikako Zuzendariordetzako arduradunei:

- Funtzionaltasun edo konfigurazio berriak guztiz garatzeko behar den analisi funtzionalaren dokumentazioa.
- Mantentze zuzentzailea:
 - akatsaren diagnostikoa
 - akatsaren zuzenketa



- zuzenketaren ezarpena
- dokumentazio eguneratua
- Bilakaerarekin nahiz egokitzearekin loturiko mantentzea:
 - software berria
 - ustiatzeko dokumentazioa
 - probak gauzatzea eta horien emaitzak
- Informazioaren osotasuna eta kalitatea softwarea garatzean:
 - Garatutako softwarea behar bezala probatuta egongo da, eta zigorak ezarri ahal izango dira behin eta berriz hautemandako akats garrantzirik gabeengatik edo errepikakorrengatik.
 - Egingako test edo proben dokumentua.
- Zerbitzuaren kudeaketari eta jarraipenari buruzko informazioa:
 - Zerbitzuaren kontrolerako eta jarraipenerako behar adina datu.

4.4. SOFTWAREA JASO ETA USTIATZEN HASTEA

Ekoizten hasi aurretik entregatu behar du adjudikaziodunak aurreko atalean deskribatutakoa.

BBUPek koordinatuko du ekoizpena, eta adjudikaziodunak haren ustiapen-arauei jarraitu beharko die.

Lan bakoitza amaitutakoan, lan egingako orduak zenbatuko dira. Planifikatutakoarekiko desbideratzerik badago, desbideratzea BBUPi edo adjudikaziodunari egoztekoa den zehaztuko da.

5. PROIEKTUA ANTOLATU, KOORDINATU, GAUZATU ETA KUDEATZEA.

5.1. PLANGINTZA.

Kontratua formalizatu eta hurrengo astean hasiko dira lanak, eta adjudikaziodunak eskaintzan adierazitakoaren arabera egingo dira, kontratu honen iraupen-epearen barruan eta administrazio-klausula partikularren agirian adierazitako mugarrien arabera; nolanahi ere, mugarri horiek aurreratu egin ahal izango dira, kontratuaren arduradunek hala erabakitzen badute.

5.2. LANTALDEA

Kontratututako jarduerari atxikita dauden eta adjudikaziodunak eskaintzan sartu dituen profesionalen taldean aldaketa arrazoiturik egiten bada, aldaketon berri eman beharko die enpresa adjudikaziodunak arduradunei. Nolanahi ere, profesionalak baldintza-agirietan eta eskaintzan eskatutako betekizunak bete beharko dituzte.



Lizitatzailerak eredu bat definitu beharko du, kudeaketa, zuzendaritza eta koordinazio zuzen eta eraginkorra bermatzeko arlo hauetan: proiektuaren helburu, jardura eta zereginak; hura gauzatzeko ardura duen lantaldea, BBUPen zerbitzuekiko harremanarena; eta kontratu honen ondoriozko entregagaien eta produktuen kalitate eta egokitasuna.

Ezarpen-proiektua hobeto antolatzearen, adjudikaziodunak pertsona bat izendatuko du proiektuburu (nahikoa ahalmen izango du), administrazio-klausula partikularren agirian adierazitako gutxieneko baldintzekin. Pertsona horrek kontratuaren arduradunekin hitz egin beharko du, eta arduradunei dagokie lanak gainbegiratu, kontrolatu eta onartzea, bai eta egoki irizten dituzten zuzenketak zehaztea ere.

Bilerak, gutxienez, hilean behin egingo dira, eta honako alderdi hauek landuko dira haietan:

- Zerbitzuaren kalitate-mailaren helburuak eta adierazleak betetzea.
- Zerbitzuaren gorabeherak.
- Aurrerakadak hobekuntzetan.
- Lanen plangintza.

Eskatutako profil bakoitzerako kaudimen teknikoaren gutxieneko baldintzak hauek dira:

1. profila: proiektuburua.

- Unibertsitate-tituluduna.
- Bost (5) urteko esperientzia GIS proiektuekin lotutako proiektuburu gisa.
- ITIL-V3 ziurtagiria edo berriagoa

2. profila: Smallworld soluzioen analista-programatzailea.

- Unibertsitateko titulazioa IKTekin zerikusia duten ikasketetan (informatika-ingeniaria, telekomunikazioetako ingeniaria...).
- Bost urteko esperientzia enpresa lizitatzaileraren plataformako senior garatzaile gisa, uraren sektorearekin lotutako proiektuetan berariazko funtzioak betetzen.
- Oracle Spatial-ekin lotutako proiektuetan esperientzia izatea.
- GeoSpatial Analysis Software (GSA) produktuarekin lotutako proiektuetan esperientzia izatea.

3. profila: ESRI analista-programatzailea.

- Unibertsitateko titulazioa IKTekin zerikusia duten ikasketetan (informatika-ingeniaria, telekomunikazioetako ingeniaria...).
- Bost (5) urteko esperientzia ESRI tresnen garatzaile senior gisa, enpresa lizitatzailerak proposatutako plataforman, uraren sektorearekin lotutako proiektuetan funtzio espezifikoak betetzen.
- ArcGIS Utility Network Specialty edo Associate ziurtagiria.



5.3. PROIEKTUA GAUZATZEA

Lanak BBUPen bulegoetan egiten direnean, lanaldia astelehenetik ostiralera izango da, denen artean adostutako ordutegian. Behar izanez gero, BBUPek zehaztuko du zer prozedurari jarraitu behar dion adjudikaziodunak hasieran hitzartutako ordutegitik kanpo lanak egin ditzan eskatzeko.

Hala ere, salbuespenezko egoeretan, eta BBUPen iritziz lanak plangintzarekin bat ez badatoz, erabateko prestasuna izateko konpromisoa hartu behar du adjudikaziodunak.

5.4. JARRAIPENA ETA KONTROLA

Proiektuaren jarraipena eta kontrola egiteko, hauek hartuko dira oinarri:

- Kontratuaren arduradunek eta proiektuburuak proiektuaren bilakaeraren etengabeko jarraipena egingo dute.
- Kontratuaren arduradunek, proiektuburuak eta BBUPen arduradunek jarraipen-bilerak eta berrikuspen teknikoak egingo dituzte proiektuaren bilakaeraren arabera finkatzen den maiztasunarekin, honako hauek berrikusteko: helburuak zenbateraino bete diren, proiektuan diharduten langileen berresleipenak eta aldaketak, helburu bakoitzaren zehaztapen funtzionalak eta egindako jardueren programazioen baliozkotzea.
- Berrikuspen teknikoak egin ondoren —horien akta egingo da—, kontratuaren arduradunek erabat edo zati batean baztertu ahal izango dituzte egindako lanak, adostutakoari erantzuten ez badiote edo kalitate-kontrolak gainditzen ez badituzte.

5.5. TRANSFERENTZIA TEKNOLOGIKOA

Kontratuaren xede diren lanak egiten ari diren bitartean, adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du, une oro, kontratuaren arduradunek izendatutako pertsonari eskatzen duten informazioa eta dokumentazioa emateko, erabat ezagut ditzaten lanak zer egoeratan egiten diren eta sor daitezkeen arazoak, bai eta litezkeen arazo horiek konpontzeko zer teknologia, metodo eta tresna erabili diren jakiteko ere.

6. PROIEKTUAREN KALITATEAREN ETA ALDAKETAREN KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIOA

Kalitatea ziurtatzeari dagokionez, adjudikaziodunak honako jarduera hauek egin beharko ditu, gutxienez:

- ☐ Prestazioen maila sendoa, osoa eta zuzena dela eta baldintza-agiriko betekizun funtzional eta teknikoak betetzen dituela ziurtatzea.
- ☐ Egindako lanetan kalitate-neurriak jaso direla egiaztatzea.
- ☐ Prozesuek kalitate-estandarrak eta -baldintzak betetzen dituztela eta behar bezala berrikusten, ezartzen eta exekutatzen direla egiaztatzea.
- ☐ Laguntza teknikoaren proiektua eta zerbitzua hobetzeko mekanismoak ezartzea, jasotako monitorizaziotik eta adierazleetatik abiatuta.
- ☐ Jarraipena egitea, arazoak, akatsak eta arriskuak erregistratu, informatu, konpondu eta itxi daitezen.



Gorabeherak eta zerbitzu-eskaerak kudeatzeko lineako plataforma bat ezarriko du adjudikaziodunak.

- Arriskuak arintzea, akatsak ahalik eta gehien murrizteko eta prebentzio-ekintzak ezartzeko.

Jarduera horiek eta proposatzen diren beste guztiak kalitate-planean deskribatu behar ditu lizitatzailleak, eta memorian jaso.

Adjudikaziodunak, halaber, proiektuaren aldaketaren kudeaketarako eta komunikaziorako beharrezkoak diren lan guztiak egin beharko ditu. Egin beharreko gutxieneko jarduerak honako hauek izango dira:

- Aldaketaren kudeaketan adituak diren aholkulariak sartzea lan-saioetan, eskaintako soluzioa ezartzean inplikaturako erabiltzaileei lotutako arrisku nagusiak identifikatzeko.
- Aldaketaren kudeaketarako eta komunikaziorako definitutako ekintzak planifikatzea, kontratuaren arduradunen oniritziarekin.
- Proiektua gauzatzen parte hartzen duten eragileei ezagutarazteko aukera emango duten hedapen- eta komunikazio-ekintzak egitea.

7. PRESTAKUNTZA-PLANA

Plan hau gauzatzearen helburua garatutako edo eguneratutako software-elementu guztiak erabiltzeko, administratzeko eta instalatzeko behar den prestakuntza ematea da, gutxienez honako profil hauek bereiziz: erabiltzaile funtzionalak (bai Kontratazio Sailekoak, bai beste zerbitzu batzuetakoak) eta informatika-teknikariak.

Plan hau enpresa adjudikaziodunak eta kontratuaren arduradunek adostutako behin betiko trebakuntza-plana egiteko abiapuntutzat hartuko da, atal honetan deskribatutakoaren arabera.

Prestakuntza Plana egingo duten pertsonak nahikoa eskarmentu izango dute zeregin didaktikoetan (planaren xede diren gaietako bakoitzean) eta sektore publikoko kontratazioaren ezaugarriei eta berezitasunei buruzko ezagutza handia izango dute.

Prestakuntza-ordutegia BBUPen beharretara egokituko da, lan-ordutegiaren barruan, eta denboran planifikatuko da, ahal dela dagokion sistema martxan jarri aurreko aldiarekin bat etor dadin.

Prestakuntza-ikastaroak kontratuaren arduradunek baimendutako eta zehaztutako bulegoetan eman beharko dira.

8. SEGURTASUNA ETA KONFIDENTZIALTASUNA. DATUEN BABESA

Adjudikaziodunak berariaz adierazten du honako hau: kontratua betetzearen ondorioz datuen baten berri badu —Datuak Babesteko Agentzian deklaraturak dauden eta Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean alta emanda dauden fitxategietan daudenak—, isilpean gordeko du datu hori inolako mugarik gabe, batez ere datu pertsonalei dagokienez. Datu horiek ezingo ditu ez kopiatu ez erabili baldintza-agiri honetan jasotakoaz bestelako ezein helburutarako, ez eta beste batzuei laga ere, kontserbatzeko izanik ere.



Adjudikaziodun gisa proposatutako lizitatzailerak memoria deskribatzaile bat aurkeztuko du, erabilitako datuen eta emandako dokumentazioaren eskuragarritasuna, konfidentzialtasuna eta osotasuna ziurtatzeko hartuko dituzten neurriak deskribatzeko, hain justu ere. Memoria horretan jasoko da, halaber, enpresak erantzukizun propioa duela alde batera utzi gabe, materiala eta beharrezko informazioa behar bezala erabiltzeari dagokionez BBUPEkin harremanetan egoteko baimenduta egongo diren pertsonen izendapena. Konfidentzialtasuna mantentzeko betebeharra informazio horrek izaera hori galdu arte edo BBUPEk behar bezalako baimena eman arte mantenduko da, nahiz eta kontratua iraungi.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren hogeita seigarren xedapen gehigarriaren arabera, lizitatzailerak Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta lege hori garatzeko araudian — abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan dago jasota — xedatutakoa bete beharko du, eta kontratua formalizatu eta hurrengo hilabetearen barruan izenpetu beharko du aipatutako lege organikoaren 12. artikuluan aurreikusitako kontratua.

9. MANTENTZEA ETA ZERBITZU-MAILA

Adjudikaziodunak produktua mantendu beharko du kontratuak irauten duen bitartean, atal honetan zehaztutako zerbitzu-mailaren arabera, eta bertan honako jarduketa hauek sartu beharko dira:

- Enpresa adjudikaziodunak instalatutako bertsio bati egiten dizkion zuzenketak eta aldi baterako hobekuntzak.
- Sistemen moduluetan bertsio berriak edo aldaketak instalatzeko laguntza teknikoa.
- Laguntza teknikoa, softwarearen funtzionamendu-akatsen baten ondorioz softwareari egotz dakiokeen arazoren bat gertatzen denean.
- Mantentze telematiko mugagabea. Baliabide horrekin, enpresa adjudikaziodunak laguntza-bide azkarra eta eraginkorra ezarriko du.
- Konexio telematikoa, lineako arazoak urrunetik konpontzeko.
- Gorabeheren berri emateko webgunea.
- Telefono bidezko laguntza, zalantza, gorabehera edo ezusteko sinpleak argitzeko, berehalako erantzunarekin. Telefono bidezko laguntza-zerbitzua lanaldi osoan, 8:00etatik 15:00etara, eta 16:30etik 20:00etara.
- Sistemaren mantentze zuzentzailea edo prebentiboa, hau da, sistemak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko egin beharreko lanak. Programen funtzionamendua hiru hilean behin berrikusiko da.
- Aplikazioak behar bezala ez dabilatzeko edo datuak behar ez bezala inportatu direlako, adjudikaziodunak okerreko datuak berreskuratzea.
- Eskatutako hobekuntzak hurrengo bertsioetan sartuko dira, gainerako bezeroek erabil ditzaten.
- Erabiltzaile-eskuliburu eguneratu bat izatea eta aplikazioari gehitzen zaizkion bertsioen eguneratze eta hobekuntzak erabiltzeko trebakuntza.



Ezinbestekotzat jotzen da kontratuaren xede diren sistemen erabilgarritasuna bermatzea, zerbitzua etengabe martxan egon dadin. Hori dela eta, zerbitzu-mailako akordio hau ezartzen da. Betetzen ez bada, zigorrak ezarriko dira, berariazko klausula administratiboen orrian adierazitakoak.

Lizitatzailerak, bere proposamenean, zerbitzuko gorabeherari erantzuteko eta horiek ebazteko gehieneko epeak zehaztuko ditu. Epe horiek taula honetan adierazitako errendimendu-helburuen berdinak edo txikiagoak izan beharko dute:

Lehentasuna Erantzuteko denbora Ebazteko denbora

Lehentasuna	Erantzuteko denbora	Ebazteko denbora
Helpdesk	30 minutu	24 ordu
Kritikoa	2 ordu	4 ordu
Handia	4 ordu	8 ordu
Txikia	24 ordu	48 ordu

Ondorio horietarako, beharrezkoa da honako gogoeta hauek egitea:

- Erantzuteko denbora: Gorabeheraren edo arazoaren berri ematen denetik hura zati batean edo erabat ebaztea eta larritasun-maila murriztea dakarren proposamenera arte igarotzen den denbora.
 - Ebazteko denbora: Gorabehera edo arazoaren berri ematen denetik bertsio berri bat edo erabat ebaztea dakarren konfigurazio-aldaketa bat ezarri eta behin betiko onartzen denera arte igarotzen den denbora.
 - Lehentasun kritikoa: Lizitazio-plataforma ez dago martxan edo akatsak erabiltzaile guztiei eragiten die.
 - Lehentasun handia: Lizitazio plataformari edo espedienteak kudeatzeko aplikazioari akats larri batek eragiten dio.
 - Lehentasun txikia: Lizitazio-plataforman edo espedienteak kudeatzeko aplikazioan akats txiki bat dago.
- Adierazle horiek zerbitzua gauzatu bitartean neurtuko dira.

10. ENTREGAGAIK

Kontratuaren emaitza gisa, gutxienez ondoren zehazten den dokumentazioa osatu eta entregatu beharko da, bai testu-tratamenduko formatuan, bai PDF formatuan, eta dagokion mugarria ez da amaitutzat joko dokumentazio hori entregatu eta balioztatu arte:

- Proiektu-plana: Batez ere, egutegi zehaztua eta kalitate-plana izango ditu.
- Proiektuaren jarraipen-txostenak, kontratuaren arduradunek baliozkotuak.



- Bilera-aktak: Deialdiak, gai-zerrenda, bertaratuak eta egindako bileretan lortutako akordioen laburpena.
- Informazio-sistemaren osagai edo modulu bakoitzerako:
 - Erabiltzaileen eskuliburua: Erabiltzaile-profil bakoitzerako funtzionaltasunen deskribapena, aplikazioak erabiltzaile-mota bakoitzerako izan dezakeen lineako laguntzaz gain.
 - Administrazio-eskuliburua.

Kontratuaren adjudikaziodunak iturburu-kode eguneratuak emango ditu, baldin eta enpresa edozein arrazoiengatik ixten bada, beste arrazoi batzuegatik bat egiten badu, beste batek xurgatzen badu edo haren negozio-lerroa aldatzen bada, edo BBUPEk hala eskatzen duen edozein unetan.

Bilbon, 2024ko urriaren 22an.

Bilbon, 2024ko urriaren 22an.

Informatikako proiektuen arduraduna

Informatika Saileko zuzendariordea

Izenpetua: José Antonio Crispín

Izenpetua: José Luis Unzueta